

# Hiztun oro normalizatzaile bihurtu

Gurean ez da oso ohikoa esaldi berean hizkuntza normalizazioa eta justizia soziala berbak aurkitzea. Gurean ez da oso ohikoa honen moduko galderak egitea: izan al zaitezke feminista gaztelaniaz biziz? Hori dela eta, Galizia aldera jotzea erabaki nuen uztailean, hango udako ikastaro batera.

| TXERRA RODRIGUEZ / EMUN |

IKASTAROA Carballo herrian izan zen, A Coruña. CTNLk (Coordinadora de Traballadores/as de Normalización da Lingua, hango hizkuntza teknikarien elkarteak) eta A Coruñaiko unibertsitateak antolatu zuten, hiru egunetan. Hizkuntza normalizazioa eta justizia soziala jarri nahi izan zituzten harremant. Horretarako, ekologistak, etorkinak, ekintzaileak, feministak, lesbianen eskubideen aldekoak, gazteak eta abar gonbidatu zituzten jende aurrera.

Galizieraren alde egitea zuzena da, bidezkoa da. Eta zuzenak diren beste aldarrikapenekin bat egin behar du galizierak. Horixe da jardunaldietan antolatzaileek ateratako ondorio nagusia. Beste ondorio batzuk atera ditut nik bederen. Agian, horiek gure hizkuntza egokerraz egokitze bide ez oso malkartsua izan dezakete.

Behin baino gehiagotan aipatu zuten autokonfiantza hitza hizlariak eta jardunaldietako partehartzaileek, modu horretan zein bestelakoetan (harrotasuna, boteretzea...).

**Galizieraren alde jardun dutenak orain arte goi mailako funtzioei begira aritu dira: unibertsitatea, komunikabideak, irakaskuntza, administrazioa, justizia ... Goi mailako funtzioei begira eta maiz administrazioari eskean**



Hizkuntza teknikarien koordinadorak eta A Coruñaiko (Galizia) unibertsitateak antolatutako udako ikastaroetan uztailean.

Galizieraren alde jardun dutenak orain arte goi mailako funtzioei begira aritu dira: unibertsitatea, komunikabideak, irakaskuntza, administrazioa, justizia... Goi mailako funtzioei begira eta maiz administrazioari eskean.

Baina gauzak aldatzen ari dira, apurka bada ere. Hor daude azken urtean sortu diren partaidetza herritarreko komunikabideak (*Sermos, Praza, Dioivo*), partaidetza herritarreko eskolak (Semente, Galiza co galego ekimena), interbentzio eredu berriak (Burela eredu) eta abar.

Eta agian, ziaboga har-

tzeko unea heldu dela adierazi zuten jardunaldian. Agian, estrategia aldatzeko unea heldu dela. Horrek ez du esan nahi goi mailako funtzioen aldeko lana bertan behera utzi behar denik, ez du esan nahi administrazioari eskatu behar ez zaionik. Inola ere ez. Baina lan ildo berriak lantzeko momentua heldu da akaso.

## Hiztuna mimatu

Orain arte, galizieraz egiten duenari ez zaio behar besteko jaramonik egin. Ez dira hiztunen jarrerak sakon landu, ez da leialtasuna modu zuzenean jorratu. Eta bada garaia galizieraz egiten dutenak zaintzeko, bada garaia horiek babesteko, horiek baitira normalizazioaren



**Radio Burela irratian galiziera hiztun berriei eta iritsi berriei arreta berezia jartzen diete.**

benetako protagonistak, benetako akuiluak.

Eguneroko praktika ohikoei garrantzia eman behar zaie, leialtasunaren hauspoa puztu. Ezinbestekoa da konfiantzaz eta harrotasunez lepo dauden hiztunak izatea. Komunitate bakoitzak bere burua jagon egin behar duelako, bere burua gobernatu. Baina horretarako komunitatean sinisten duten hiztunak behar-beharrezkoak dira.

Komenigarria da oso, beste mugimenduek —bidezkoak diren beste aldarriak dituzten mugimenduek— erabili dituzten tresnak aztertu eta, ahal den neurrian, hizkuntza normalizazioari egokitzea: adibidez,

feministek erabilitako boteretze-estrategiak, aurreiritziak zapuzteko teknikak, administrazioarekin negoziatzeko eta borrokatzeko moldeak...

Helburua: eredu izango diren hiztunak sortzea eta babestea. Galizieraz egiten duen oro, hein batean bada ere, normalizatzailea da, hizkuntza aldaketaren (edo aldaketa ezaren) bultzatzailea. Galizieradunek barneratu behar dute normalizatzaile direla eta euren hizkuntza jarrerak aldatzeko bideak hartu. Horretarako, beharrezkoa da hiztun horiek mimatzea.

Bestelakoez ere aritu ziren han: jasangarritasunari buruz, hizkuntza transmisioaz, arnaguneei buruz, gertutasunari buruz, inperialismo linguistikoaz, sare horizontalei buruz, Interneti buruz...

Aldeak alde, eta hizkuntzak hizkuntza, jardunaldietan bizitakoa ez da gurean bizi dugunaren oso ezberdina. Kontu

**Helburua eredu izango diren hiztunak sortzea eta babestea da. Galizieraz egiten duen oro, hein batean bada ere, normalizatzailea da, hizkuntza aldaketaren (edo aldaketa ezaren) bultzatzailea**

## Burela eredua

Burela Lugoko A Mariña eskualdeko herria da, 12.000 biztanle ingurukoa. Orain dela zazpi urtetik, Burela eredua izeneko interbentzio soziolinguistikoa ari dira egiten. Hizkuntza plan berezia daukate herri horretan.

Behetik gora egindako plana da, institutuko gazteek eta irakasleek bultzatutakoa eta udalak onartua aho batez. Horrez gain, partehartzailea da. Plana aurrera eramaten dute herriko gazteek, irakasleek eta herritarrek. Eredu horretan ez dago hizkuntza teknikaririk.

Orain arte, urtero gai bat landu dute: hilerriak, notariak, merkataritza, eliza, osasungintza, musikagintza... Hitzun berriei arreta berezia jartzen diete, baita etorri berriei ere. Radio Burela irratian *Proxecto Neo* irratsaioa egiten dute astero. Aldi bakoitzean galiziera nagusitan ikasi duen pertsona bat edo batzuk gonbidatzen dituzte euren ikasketa prozesuari buruz hitz egiteko. Burela ereduak hainbat sari jaso ditu Galizian eta Espainian berrikuntza pedagogikoengatik. “Modelo Burela” terminoa idatzita, ereduaz azaltzen duen ordubetetik gorako bideoa aurkituko duzue Interneten. ARGIA.com-en ere multimedia materiala izango duzue aurki.

batzuetan, ia-ia Galizia jartzen den lekuan Euskal Herria jarri eta emaitza berdintsua izan daiteke. Hala ere, aberastu egiten da bat bestelako errealitateak eta kezak jasotakoan. ■



Babeslea: Euskal Herriko Unibertsitatea

**Gratuondokoak euskaraz UPV/EHU 2012-13 ikasturtea**

### Master ofizialak:

- Euskal nazionalismoa XXI. mendean
- Hizkuntzalaritza eta euskal filologia
- Hizkuntzaren azterketa eta prozesamendua
- Multimedia komunikazioa. EHU-EITB unibertsitate-masterra
- DBHko, Batxilergoko, LHko eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza

### Unibertsitateko espezialista tituluak (berezko tituluak):

- Euskal Herriko pentsamendu kritikoa XX.-XXI. mendeetan
- Hizkuntza-plangintza
- Itzulpenintza eta teknologia
- Software librea: sistema, sarea, segurtasuna eta web-aplikazioak
- Neuroerabilitazioa
- Hondakinen kudeaketa eta tratamenduak



Informazio gehiago:  
[www.ikasketak.ehu.es](http://www.ikasketak.ehu.es)